

Serapio Mugica, Hondarribiko ongilea

Hondarribia, 46. zk., 1992-09: 34.

Orain gutxi hil zaigu Hondarribian Florentino Portu jauna, herriko administrazio eta dokumentazioak gaur dituen oinarriak jarri zizkion gizona. Ez dute Euskal Herriko hiri eta herri guztiek zori bera izan; garai batean idazkari zenak herriko paper eta agiriak etxean gordetzen zituen ere ezagutu bazuten, eta askotan bere sukaldeko sua piztutzeko erabiliak, pentsa dezakegu nola joan diren gure herriko agiriak askotan, batez ere herri txikietan.

Garai hartan Euskal Herrian denak ziren txikiak; guk ez dugu hiri handirik orain gutxi arte izan, Bolivarrek Bilbon egun batzu igaro zituen 1800.go inguru hartan, nahiz eta XVI.go gizaldiaz gero *Consulado* ospatsuaren lan handia egin izan, gure hiri nagusiak 5.000 biztanle besterik ez zituen!

Herri batzuk bazuten garrantzi historikoa ordurako, Bilbok bezala; hau da Hondarribiaren kasu ezaguna ere: 2.500 biztanlera iritxi ez arren, garrantzi handia zuten agiriak sortu zituen, batzu bertan gordeak, eta besteak Simancas, Iruñean eta Madrileko Erregetxean goardatuak; leku hauetara joan behar zen agirien bila herriko ondarea galduko ez bazen, eta Florentino Portuk lan guzti hau egiteko ikasi egin behar zuen, honetarako kanporatu, eta kanporatzeko mediorik ez! Eta hara nola etorri zitzaion lehialki bertara bera baino 44 urte zaharragoa zen profesional euskaldun bat.

Hau don Serapio Mugica izan zen.

Serapio Mugica Zufiria Ormaiztegin jaio zen 1854.go azaroaren 14ean. Garai hartan gure Oñatiko Unibertsitatea bigarren mailakoa izatera makurtua zuten Espainiako Unibertsitate eta gaztelauen interesek; ez bada ahalegin guztiak egin ez zirelako Gipuzkoatik, eta batez ere Oñatitik, bertako udaletik hain zuzen, eta garai hartan beste asko bezala Zaragozakora joan behar izan zuen Serapio gazteak, etxetik urrun eta garestiago. Hain egin zuen lehen karrera: Zuzenbidea; baina honez gain Eskribau ere izan nahi izan zuen, gure herrian antzinatik beste euskaldun ospatsu batzu bezala, eta Notario ere egin zen, uste denez Bartzelonan, karrera hau gero inoiz ihardun ez bazuen ere.

Askotan gertatzen den bezala, egindakoaz kanpo dagoen zerbait egin nahi izaten da gero, askotan lan aukerak berak bidea erakusten duelako, baina ikasitakoa, zer nahi dela, beti izaten da lagungarri edozertarako.

Gure herriko programan Unibertsitate eta ikastetxe handi gutxi izan badugu ere, gerra izan dugu ugari; bada, gure herrian sobera izan dugun gerra hauetako bat tokatu zitzaion Serapio gazteari ere; hamazortzi urte zituela, bigarren karlistadak (1872-1876) harrapatu zuen; ez dakigu suak non atxeki zuen, seguraski ikasketetan zegoela, eta bolondres eta boluntario joan zen, eta liberalekin.

Karlistada amaitu, eta dakiguna da, urte batzuk beranduago, 1892an, 38 urte zituela (eta Florentino Portu oraindik jaio gabe), jarri zela Gipuzkoako Diputazioan artxiboak antolatzen.

Gipuzkoako Diputazioa denboretan herriz herri txandatzzen zen (Tolosan luze), aspaldian Donostian, Diputazioko Palazioan badago ere. Halere, kontuan hartzekoa da don Serapio argitaratu zuen lehen lana: *Indice de los documentos del Archivo Municipal de la ciudad de San Sebastián*, dela (1898); Donostiako udalez arduratu zela lehen, alegia. Eta, hala, ez da harritzekoa don Serapio Mugica bera izatea Gipuzkoako udaletan herriz herri lan hau egiten jarri zen gizona, herriak bait dira Gipuzkoako oinarri. Ordenaren eta zehaztasunaren zentsu argia zuena zen, nonbait, eta ez zituen lanak gainetik pasatzen uzten. Pertsonalki bere ardura zuzenetik pasa zituen herriak hauek dira: Zestoa, Aizarnazabal, Ezkio, Zumaia, Zumarraga, Donostia, Irun, Hondarribia, Errenteria, Oiartzun, Ordizia, Eibar eta Astigarraga, eta udaletxeak zuzentzen zituen batera arduratzen zen parrokiako agiriaren gordelekuez ere.

Hara, bada, laburki aipatuta, Hondarribiako herriak, beste herri batzuk bezala, don Serapio Mugica Zufiriari dion zorra.

Liburuak ere idatzi zituen oso jakingarri direnak; hara hemen, ezagunenak aipatutako *Curiosidades históricas de San Sebastián* (1900), eta gero *Alarde de San Marcial de Irún* (1901), *Río Bidasoa* (1905), *El blasón de Guipúzcoa* (1915), *Las calles de San Sebastián* (1916), *Elcano, y no Cano* (1920), "Guipúzcoa" *de la Geografía General del País Vasco Navarro* (1918), *Los Gascones en Guipúzcoa* (1923), *Guía de Guipúzcoa* Fausto Arocenarekin batera, (1930), *Juan Ignacio Gamón, Noticias Históricas de Rentería* (1930, Arocena ospatsuarekin), *Donación a Leire* (1935), *Orígenes de San Sebastián* (1936).

Donostian hil zen 1941.go martxoaren 16an, bere izena darama, merezi bezala, hiri nagusiko kale batek.